

Donostian, 2019ko uztailaren 23an

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

PREMAIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA, ARTE EDERRAK ANTZOKIAREN BARNEALDEA ERAISTEKO BAIMENARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua araberaren arabera, honako PRESAZKO INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkeztu diot Miren Nekane ARZALLUS ITURRIZA Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkari andrearari, UDALBATZAREN osoko bilkuran aztertzeko, Arte Ederrak antzokiaren barrualdea eraisteko baimen eskaera dela eta.

PRESA JUSTIFIKATZEA

Joan den apirilaren 24an, Arte Ederrak antzokiaren eraikinaren barrualdea eraisteko baimena eskatu zion Udalarari eraikinaren jabe den SADE enpresak. Uztailaren 24an eskaeraren aldeko edo kontrako erantzuna emateko hiru hilabeteko epea amaitzen denez gero, eta administrazioaren isiltasunak eraikinaren barrualdea eraisteko bidea ematen duelakoan gaudenez gero, uste dugu lehenbailehen azaldu beharra dagoela zergatik ez duten ebatzi oraindik eraisteko eskaera, alde ala aurka.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den apirilean, SADEk lizentzia eskatu zion Udalarari, Arte Ederrak eraikinaren teilatua eta besaulki patioaren sabaia eraisteko. Eskaera horren aurrean, alkateak adierazi zuen Udala "oso zorrotza" eta "oso estua" izango zela eskaera aztertzeko orduan. Halaber, alkateak jakinarazi zuen espezialistei kanpoko azterketa bat eskatuko zela, SADEk eskatzen zuen esku hartzea zehatz-mehatz ikertzeko.

Denbora luzean jasan ditu eraiste mehatxuak Arte Ederrak antzokiak. Udalak babestutako eraikina da, eta duela pare bat urte arte, Eusko Jaurlaritzak babestuta izan zuen. Hainbat herritar mugimendu azaldu dira urterik urte higiezina babestearen alde, eta joan den apirilean Monumentu eta Lekuen Nazioarteko Kontseiluak (Icomos), Unescori loturiko kontserbazio nazioarteko sarerik handienak, nazioarteko alerta bat adierazi zuen, monumentua saltzeko asmoz, Eneko Goia alkateari eskatzen ziolarik Arte Ederren osotasuna, benetakotasuna eta berezitasuna babesteko. Horrek esan nahi du herritarrentzako eta erakundeentzako Arte Ederrak balio historiko, arkitektoniko eta sinboliko handia duela.

Hala ere, jabetza ez dator bat ikuspegi horrekin, eta eraikina bertan behera lagata izan du urte askoan. Enpresa gisa, jabeak bere jabegotik etekina atera besterik ez du nahi, baina beharrezkoa da berriro negoziatzen hastea eta azken hiru hamarkadetako abandonuari amaia ematea.

Legealdia hasi ondoren, ondarea kontserbatzeko ANCORA elkarteak bilera bat eskatu dio Miren Nekane Arzallus zinegotzi ordezkariarekin —lehen aldiz, ekainaren 24an—, gai hori jorratzeko, baina oraindik ez du erantzunik lortu.

Egindako gogoeten arabera eta kontuan hartuta zein unetan gauden, eraikinaren barrualdea abuztuan eraisten hasi ahal izatea, honako hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Zer dela eta ez dio erantzun Udalak joan den apirilaren 24an SADEk aurkeztutako eraiste eskaerari?
2. Une honetan, eraispen eskaera egin zutenetik hiru hilabete igaro direlarik, Udalak, administrazio isiltasunez, Arte Ederretako eraikinaren barrualdea eraisteko bidea emango du?

3. Zer dela motibo ez dio erantzun Hirigintzako zinegotzi ordezkariak Ancora taldeari erantzun, taldeak biltzeko hiru eskaera egin ondoren?
4. Zergatik ez diete taldeei argibiderik eman alkateak joan den maiatzean agindutako azterlanaz, eraikinaren barrualdea eraisteko SADEk egindako eskaera aztertzeari buruz?

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia.